



Euskal Kultur  
Erakundearen  
laguntzaz egindako  
gehigarria

## XANPUN-i



Nahiz eta Senpere Olhagarraian (Helbarrun-en) sortu eta 8 urte arte bizitu izan, Senpererek ez dio Xanpun-i sekulan omenaldirik eskaini. Gizon eta bertsolari maitatua laisterregi joan zauku. Duela zonbeit urte Donibane Lohizunek egin zion omenaldi hunkigarria, non aipatu izan baitzen Place Louis XIV.-ari, Xanpun izena emanen ziotela. Egun hartan ere, P. Minaberrrik lau bertsu kantatu ziozkan, gure egin ditugunak.

Zure omenaldia etorri da egun Euskal Herri guzitik hitzarturik lagun Boteretsua baita gaur gorets dezagun Agur eta ohore bihotzetik Xanpun.

Baxenabarretik naiz goiz hunaraino jin Neure baitan ditudan sentimenduekin Adiaraz nezake deiadarrarekin Xanpun paregabe bat badugu Lapurdin.

Gogoeta gaitzen ez baita debalde Zimenduak azkartuz euskararen alde Ikastolan sartzeko eginen dut galde Bainan aurkitzekotan Xanpun erakasle.

Jainkoak zerutikan baiezza bagintza Lehenik egin liru Xanpun-en agintza Goraki sustaturik zuk bertsularitza Eskerrrik asko daukat ordaintzeko hitza.

**P. Minaberry**  
1995/09/24  
Airea: Xardina saltzalea

## Igande arrats batez

Igande arrats batez  
Izar bat ikusi dut  
Jalgitzen da zerutik  
Ilunduz geroztik (berritz)  
Distiratzen baitzuen ororen gainetik  
Haren kalitatea ez zaukan parerik  
Urratu ez balitz (berritz).

Mundu honetan naizela  
Nik baditut zonbait urte  
Holako izarrikan  
Ez dut ikusi uste  
Iduzkiaren azpian kausi ez laiteke  
Sartu zaut bihotzean ateratzea neke  
Hain ginduen maite (berritz).

**Frantxua FAGOAGA «Apezteik» kantatua.**  
Airea: Maitea nun zira.

## Apeza ari zauku

Apeza ari zauku prediku alkitik  
Ontsa begira gaiten gormant izatetik  
Bera nola bizi den jendeak badaki  
Zardina utzi eta (ai, ai, ai) tira oilaskotik.

**Aire zonbait: Mexikoko mariatxi.**  
**Martin Koxe. «Aunitz otoiztu zuken...» Aritza taldearena.**  
**J. Pier LAZKANOk kantatua.**